



2017ko sagar uzta: Bilketa 'historiko' batekin, lau milioi litro euskal sagardo

~ SAGARDOTEGI DENBORALDIA

Sagar uzta 'historiko' batekin lau milioi litro sagardo egin dituzte 2017an

AGENTZIAK | ERREDAKZIOA 2018/01/15

Alberto Iñurrategi mendizaleak emango dio hasiera aurtengo 'txotx' denboraldiari. Eguerdian izango da Astigarragako Gurutzeta sagardotegian.

🔊 Orria entzun



Sagardotegien denboraldia gaur abiatuko dute. EFE

Partekatu 4 Tw eet Partekatu



ALBISTEAK (2)

📅 Euskal Sagardoa jatorri deitura duten 📅 Alberto Iñurrategik 2018ko sagardo lehen botilak merkaturatu dituzte denboraldiari hasiera emango dio

"Historikoa" izan da 2017ko sagar uzta, eta bildutakoarekin **lau milioi litro sagardo** egin dituzte **Euskal Sagardoa jatorri-deiturapean**. Hain justu, zuku horien lehen emaitzak dastatu ahalko dira gaurtik aurrera, astelehen honetan abiatuko baita 'txotx denboraldi' berria, [Alberto Iñurrategi](#) mendizalearen eskutik.

Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 48 sagardotegik ekoitzi dute sor-marka duen sagardo hau: [41ek Gipuzkoan](#), [bost Bizkaian](#), [eta bi Araban](#). Euskal Sagardoa erakundeak nabarmendu duenez, "**uzta historikoa** izan da kopuruz, eta aurreratua, heldutasunari

dagokionean".

Toki eta sagar moten arabera aldea egon badaiteke ere, orokorrean uzta handia izan da, eta iaz baino lau bat milioi kilo gehiago bildu dira.

Euskal Sagardoa egiteko 250 hektareatako sagarra erabili da, eta 200dik gora izan dira sagargileak. 48 sagardotegik egin dute sagardoa, aurreko uztan baino 13 gehiagok.

Hain zuzen, sagardo horren lehen emaitza dastatzeko aukera izango da gaurtik aurrera, astelehen honetan hasiko baita **'txotx' denboraldi berria**.

Urtero bezala, uztaren, sagarraren eta sagardoaren ezaugarriak azalduko dituzte prentsaurrekoan. Gero, **Alberto Iñurrategi** mendizaleak sagarrondo bat landatuko du. Amaitzeko, ekitaldia egingo dute Astigarragako Gurutzeta sagardotegian. "Hau da gure sagardo berria, txotx" oihukatuta, denboraldiari hasiera emango dio Iñurrategik.

Hau da bihar Alberto Iñurrategik 2018ko txotx boladari hasiera emateko Gurutzeta sagardotegian irekiko duen kupela! [#txotx2018](#) [#gurutzeta](#) [#sagardoberria](#) [#albertoiñurrategi](#) pic.twitter.com/4IzNYOrg8v

— SagardoarenLurraldea (@sagarlur) 14 de enero de 2018

>

HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAUEK ERE IZATEA:

Araba | Araba | Bizkaiari buruzko albisteak | Albisteak Gipuzkoa | Hernani | EAE | Gizartea | Astigarraga bideoak |

Gaurko azken ordukoa

Iruzkina

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA



ORAIN ALBISTE



ALBISTEAK - NAFARROA

Alerta egoera Castejonen eta Andosillan Ebro eta Ega ibaiengatik

Erlazionatutako edukiak:

Tuteran, Ebro ibaiaren uraldiaren zain

ALBISTEAK - FAKTORIA, ALTA SUTIK

'Altsasu, herri oso bat, esnatu da'

KIROLA - ORDUTEGI OFIZIALAK

Real Sociedad-Athletic derbia, apirilaren 28an, larunbata, 16:15ean

ALBISTEAK - MADRIL

Cifuentesen masterreko institutuaren zuzendaria kargugabetu du Unibertsitateak

ALBISTEAK - JAVIER OLLO, ALKATEA

'Hau ez da terrorismoa. Justizia behar dugu, proportzionaltasuna'

ALBISTEAK - LANUZTEAK

Vuelingeko pilotuek greba deitu dute apirilaren 25-26rako eta maiatzaren 3-4rako

ALBISTEAK - KATALUNIA

Torrentek Pablo Llarena epailearen kontrako kereila aurkeztea proposatuko du

KIROLA - TXAPELDUNEN LIGA 17/18

Gaur, finalerdietako zozketa

KULTURA - EKAINAREN 1EAN ETA 2AN

Gaur egungo rock musikaren aldeko apustua egingo du Eibarko Ez Dok Fest jaialdiak

Albiste gehiago

BISITATUENA

ALBISTEAK **KIROLAK** TELEBISTA IRRATIA

- Emakume bat hil da Polloeko tunelean hainbat autok harrapatuta
- N-1 errepidea itxita dago Itsasondon, luizi baten ondorioz
- N-1 errepideak itxita orduak eman ditu Itsasondon, luizi baten ondorioz
- Hezkuntzan apirilera deituta zegoen greba astea bertan behera utzi dute sindikatuek
- Jaurlaritzak alokairuaren % 50 arte ordaintzeko diru-laguntzak emango dizkie gazteei
- Txandakako zirkulazioa Zarautz eta Getaria artean, luizi baten ondorioz
- uholdeak
- Larrialdi egoera ezarri dute Nafarroan, uholdeengatik
- Emakume bat hil da hainbat autok harrapatuta, Donostiako saihebidetan
- Oria ibaiak gainezka egin du Andoainen, Lasarten eta Tolosan; eta Urumeak, Hernanin



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

© EITB - 2018 -

[Lege Oharra](#)

[Cookien erabilera](#)

[Gardentasuna](#)

[Kontaktua](#)

[Web mapa](#)